



Beasaino Udala

BEASAINO UDALAREN ETA HIJOS DE MARTIN Y LOINAZ ANTZERKI ELKARTEA ARTEKO HITZARMENA DIRU LAGUNTZA NOMINATIBOA JASOTZEKO

Beasainen, 2021ko apirilaren 24an.

HONAKOAK BATZARTUTA:

Alde batetik, Leire Artola Ugalde andrea, Beasaino Udaleko Alkate-Presidentea, 35779121E NAN zenbakiduna, BEASAINO UDALAREN ordezkari gisa (IFK: P2002100B, hitzarmen honen helburuetarako helbidea: Loinazko San Martin Plaza, 1, PK 20200, Beasain), 7/85 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21. artikuluan esleitzen dizkion ahalmenak baliatuta, hitzarmen hau sinatzeko gaitasun osoarekin esku hartzen duena.

Bestalde, HIJOS DE MARTIN Y LOINAZ ANTZERKI ELKARTEA, G75115485 IFK zenbakiduna eta egoitza Beasainen duena, Nekolalde 10 helbidean, egintza honetan Ana Alonso Garcia andreak ordezkaturik, adinez nagusia dena, 08925452A NAN zenbakiduna, helburu hauetarako helbidea Nekolalde 10 duena eta ordezkari 2014ko uztailaren 18ko datako Batzar Orokorraren bileran burututako ahalmenen eskuordetzearen arabera jarduten duena.

Esku hartzaileek nahikoa gaitasun aitortzen diote elkarri egintza honetan ordezkatzeko dituzten erakunde izenean hitzarmen hau izenpetzeko eta, helburu horretarako,

HONAKO HAU ADIERAZI DUTE

- I) Espainiako Konstituzioak 43.3 artikuluan adierazten du botere publikoek herritarren bizi baldintzak hobetzeko ekintzak sustatuko dituztela.
- II) 38/2003 Legeak, diru laguntzen lege orokorrak, 22.2.a) artikuluan aurreikusten du toki erakunde aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako diru laguntzak zuzenki emateko aukera.
- III) 38/2003 Legeak, diru laguntzen lege orokorrak, 28. artikuluan xedatzen du hitzarmena izango dela toki erakunde aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako diru laguntzak bideratzeko ohiko tresna.



- IV) Beasaingo Udaleko 2021erako aurrekontuaren transferentzia arrunten eranskinean diru laguntza nominatibo bat aurreikusi da HIJOS DE MARTIN Y LOINAZ ANTZERKI ELKARTEAren alde, Antzerki amateurra bultzatzea helburuarekin.
- V) HIJOS DE MARTIN Y LOINAZ ANTZERKI ELKARTEAk garatzen dituen jarduerak eta diru laguntza honen xede direnak Beasaingo Udalaren diru laguntzak emateko eskumen alorren barne daude, Beasaingo udalerrian Antzerki amateurra bultzatzea helburua duen proiektua baita eta, ondorioz, udalari dagokion eskumena da, honakoetan xedatutakoaren arabera: 7/85 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 25.2.m) artikuluan xedatutakoa; 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17.1.20) artikuluan xedatutakoa; Beasaingo Udaleko 2021erako aurrekontuaren transferentzia arrunten eranskinean xedatutakoa; eta 2020-2022 Diru Laguntzen Plan Estrategikoan xedatutakoa, Alkatetzaren 2019ko abenduaren 18ko B19/1681 Ebazpen bidez onartu zena, KULTUR ETA JAI-JARDUERA EKINTZEN GARAPENA helburu estrategiko gisa ezarrita eta, hartara, diru laguntza hau 2. ildoaren 2.1 jarduketan barne hartuta.

Aurreko guztia kontuan hartuta, lankidetzaz hitzarmen hau izenpetu da jarraian adierazitako klausulen arabera.

KLAUSULAK

LEHENA. HITZARMENAREN XEDEA.

Hitzarmen honen xedea da HIJOS DE MARTIN Y LOINAZ ANTZERKI ELKARTEAri 1.000 euroko diru laguntza nominatiboa ematea eta Urbietako Arte Plastikoetako zentroko gela bat uztea, mantenua barne, eta kiroldegiko sotoan beste bat jarraian adierazitako jardueren garapen eta egikaritzetik eratorritako gastuen finantzaketan laguntzeko helburuarekin:

- Takolo, Pololo eta Elena Madalena antzezlanak
- Gazte eta haurren antzezlanak
- Udalak eskatutako kultur jardueretarako laguntza
- Elkaratearen garapena antzerkigintzan





Beasaingo Udala

Elkarteak zentroko arauak betetzeko konpromisoa hartzen du.

Aipatutako jardueren egikaritzeak suposatuko duen aurreikusitako gastu osoa hitzarmen honen xede den diru-laguntzaren zenbateko osoaren gainetik dago, idatzi honen eranskin modura atxikitzen den aurrekontuan ikus daitekeen bezalaxe.

BIGARRENA. BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK.

Beasaingo Udalaren betebeharrak dira:

Adostutako zenbatekoa duen diru laguntzaren ordainketa burutzea HIJOS DE MARTIN Y LOINAZ ANTZERKI ELKARTEAren alde, hitzarmena sinatu ondoren, Hitzarmen honen hirugarren klausulan adierazitako ordainketa modua baliatuta.

HIJOS DE MARTIN Y LOINAZ ANTZERKI ELKARTEAren betebeharrak dira:

1) 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, diru laguntzen lege orokorrak, 13. artikuluan xedatutako onuradun izateko debekuetan adierazitako egoeretan ez egotea, une honetan eta hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, eta Udalarekiko zerga betebeharrak egunean izatea.

2) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

3) Udal organo eskudunak edo udal kontu hartzaitzak burututako egiaztapen eta kontrol jarduketak onartzea, organo hauek, emandako zenbatekoen erabileraren fiskalizazio eta kontrolerako eginkizunak baliatuta, eska diezaioketen informazio guztia emateko betebeharra izanda, 38/2003 Legean xedatutakoaren arabera.

4) Udalari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko jasotako bestelako diru laguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak. Jakinarazpen hori laguntzak ezagutu bezain laster burutu beharko da eta, edonola ere, jasotako funtsei emandako erabileraren justifikazioaren aurretik.

5) Diruz lagundutako jarduerak burutzea.

6) Jasotako funtsen erabilera justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, kontrol eta egiaztapen jarduketan helburu izan daitezkeen heinean.

7) Diruz lagundutako jardueren finantzaketaren izaera publikoa behar bezala adierazi eta hedatzea, Beasaingo Udalak helarazitako anagrama eta logotipoak karteletan, oroipen plaketan, inprimatutako materialetan, bitarteko elektroniko eta ikus-entzunezkoetan eta komunikabideetako aipamenetan erabilia.



8) Diru laguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan, jasotako funts publikoak itzultzea.

9) Jarduera guztietan Legeak eskatzen dituen segurtasun neurriak hartzea, erabiltzaile eta ikusleen segurtasuna babestuta.

10) Elkarateak euskararen erabilera sustatuko du programatutako jardueretan. Betiere honakoak kontuan hartuta: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzak; indarrean dagoen Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Udal Ordenantza; eta Beasaingo Udalaren Euskara Sustatzeko Ekintza Plana.

11) Elkarateak kontuan hartuko ditu berdintasun irizpideak (4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea, eta 3/2012 Legea, otsailaren 16koa, aurrekoa aldatzen duena) bai elkaratearen baitan zein sustatutako proposamenen egikaritzean ere.

HIRUGARRENA. DIRU LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA ORDAINKETA.

Hitzarmen honen lehen klausulan adierazitako jarduerak garatzeko helburuarekin, Beasaingo Udalak, HIJOS DE MARTIN Y LOINAZ ANTZERKI ELKARTEAREN aldeko diru laguntza nominatibo gisa, 1.000,00 euro ordainduko ditu, jarraian adierazitako moduan:

- 700,00 euroko zenbatekoa ordaindu egingo da, hitzarmena sinatu ondoren, ordainketa aurreratu gisa, betiere Udalak egiaztatu badu zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.
- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22 artikuluan eskatzen den egiaztapena, dagokion Ogasunarekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen inguruan, Udalak egiaztatuko du datuen bitartekaritzarako plataformetan edo horretarako gaitutako beste sistema elektroniko batzuetan kontsulta eginez.

Hala ere, onuradun eskatzaileak berariaz egin ahal izango dio aurka egiaztapen horri; kasu horretan, izaera hori egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu bere kabuz.

☐ Onuradunak uko egiten dio aipatutako egiaztapen automatikoari.





Beasaingo Udala

- Diru laguntzaren azken ordainketa burutuko da onuradunaren justifikazioa jaso ondoren, diru laguntzaren xede zen jarduera, proiektua, helburua edo ezarpena gauzatu izana egiaztatzen duena, jarraian adierazitako dokumentazioaren bitartez:
 - Burututako jardueren laburpen txostena.
 - Jardueren gastuaren justifikazioa, faktura edo dokumentuen kopien zerrenda (zenbakia, kontzeptua eta zenbatekoa), Diruzainak sinatua. Ez dira erakundearekin lotutako langileen gastuen inguruko dokumentuak onartuko, aurretiazko akordiorik izan ezean.
 - Diruz lagundutako jardueretan kantitate txikiko gastuetan faktura osoak aurkezteko zailtasunak daudenean, faktura sinplifikatuak (aurreko tiketa) onartu daitezke hauekin batera elkartearen aitorpena aurkeztuz jarduerarekin loturiko gastuak direla eta beti ere Fakturatzeko betebeharra arautzen duen Erregelamendua, azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuak jarraituz.
 - Garatutako jardueraren esparruan sortutako publizitatea, iragarkiak eta dokumentazio grafiko eta idatziaren ale bat.

Hitzarmenaren xede den diru laguntza jaso ahal izateko, onuradunak ez du inolako bermerik eskaini beharko.

Hitzarmen honen xede den diru laguntza 2021 ekitaldirako indarrean dagoen aurrekontuko 0240.481.330.00.13 partidari egotziko zaio, behar bezalako nahikoa kreditu duena.

LAUGARRENA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK.

Diruz lagundu daitezke erabat beharrezkoak diren gastuak, jardueraren izaerarekin inolako zalantzarik gabe lotura dutenak eta diruz lagundutako jarduerak egikaritzeko aurreikusitako epearen amaiera baino lehen sortzen direnak, Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko betebeharren ondoriozko aholkularitza zerbitzuak barne. Honela, diruz laguntzeko moduzkotzat joko dira 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra bitartean proiektuaren garapen eta egikaritzetik sortu edo eratorritako gastu arrunt guztiak, betiere aldi horretan zehar modu eraginkorrean egikaritu badira. Egikaritutako gastu gisa ulertuko da hitzarmen honetan ezarritako justifikazio epea amaitu aurretik modu eraginkorrean ordaindu dena.

Ez dira inolaz ere diruz laguntzeko moduko gastuak izango:

- a) Banku kontuetako interes zordunak.



- b) Interesak, errekareruak eta zigor administratibo edo penalak.
- c) Prozedura judizialeko gastuak.
- d) Zuzeneko zergak, berreskuratu edo konpentsatu badaitezke.
- e) Errentaren gaineko zergak.
- f) Ez dira erakundearekin lotutako langileen gastuen inguruko dokumentuak onartuko, aurretiazko akordioak izan ezean.

BOSGARRENA. BATERAGARRITASUNA BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN.

Diru laguntza hau bateragarria izango da helburu bera duten diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide guztiekin, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatu emandakoak, edo Europar Batasunak edo nazioarteko erakundeetakoak badira ere.

Zentzu horretan eta diru laguntzen Lege orokorraren 19.3 artikuluan xedatutakoa betez, jasotako diru laguntza guztien zenbatekoa ez da inolaz ere izango, bere horretan edo beste diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

Jarduerak finantzatzeko, diru laguntzaz gain, funts propioak edo beste diru laguntza edo baliabide batzuk erabili badira, justifikazioan diruz lagundutako jardueretarako erabilitako funts horien zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa zehaztu beharko dira.

SEIGARRENA. DIRU LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA.

Ezarritako baldintzak bete izanaren eta emakidan aurreikusitako helburuak lortu izanaren justifikazioa dokumentatu egingo da justifikatzeko kontu emate baten bitartez. Kontu emate hori onuradunaren derrigorrezko egintza izango da eta barne hartu beharko ditu, deklaratuaren erantzukizunpean, diru laguntzaren helburua bete dela egiaztatzea ahalbidetzen duten gastu egiaztapenak edo balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikatzeko kontu ematea burutu beharko da 2021eko abenduaren 31 data baino lehen, Udaren aurrean aurkeztuta emandako diru laguntzaren erabilera justifikatzeko dokumentazio hau:

1.- Burututako jardueren laburpen txostena.

2.- Jardueren gastuaren justifikazio txostena, honako edukiekin:

- a) Gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data adieraziko duena.





Beasaingo Udala

b) Fakturak edo Merkataritzako trafiko juridikoan balioa duten eta administrazio-eraginkortasuna duten froga-balio baliokidea duten gainerako dokumentu guztiak ere, aurreko a) letran aipatzen den zerrendan sartutakoak. Ez dira erakundearekin lotutako langileen gastuen inguruko dokumentuak onartuko, aurretiazko akordiorik izan ezean.

3.- Diruz lagundutako jardueretan kantitate txikiko gastuetan faktura osoak aurkezteko zailtasunak daudenean, faktura sinplifikatuak (aurreko tiketa) onartu daitezke hauekin batera elkar tearen aitorpena aurkeztuz jarduerarekin loturiko gastuak direla eta beti ere Fakturatzeko betebeharra arautzen duen Erregelamendua, azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuak jarraituz.

4.- Garatutako jardueraren esparruan sortutako publizitatea, iragarkiak eta dokumentazio grafiko eta idatziaren ale bat.

ZAZPIGARRENA. JARRAIPEN, ZAINZA ETA KONTROL MEKANISMOAK.

Jarraipen Batzorde Misto parekide bat sortuko da, alderdi sinatzaile bakoitzaren aldetiko ordezkari batekin, Udaleko Alkateak eta erakunde onuradunaren organo eskudunak izendatuko dituztenak, eta batzorde horren helburuak izango dira hitzarmena sustatzea eta haren jarraipena burutzea, ager litezkeen zalantzak argitzea eta hitzarmena ebaluatzea.

Batzorde honek eginkizun hauek izango ditu:

- Hitzarmenaren eta sinatzaileek izenpetutako konpromisoen egikaritzearen zaintza eta kontrola.
- Hitzarmenaren egikaritzean ager litezkeen interpretazio eta betetze arazoak ebaztea.

Hitzarmen honetan berariaz aurreikusi ez diren kasuetarako, batzordea arautuko da, 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 15. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, administrazio publikoetako kide anitzeko organoen funtzionamendua arautzen dutenak, alegia.

ZORTZIGARRENA. ONARTUTAKO BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK EZ BETETZEAREN ONDORIOAK.

Sinatzaileetako batek onartutako betebeharrak eta konpromisoak beteko ez balitu, ez betetzea burutu duen alderdiari jakinarazpena helarazi beharko zaio, epe jakin baten barruan bete ez direla uste den betebeharrak eta konpromisoak bete ditzan. Ezarritako epea amaituta, ez betetzeak jarraituko balu, hitzarmena suntsiarazi egingo da.



Diru laguntzaren onuradunak onartutako betebeharrak eta konpromisoak bete ez balitu, emandako zenbatekoaren zati proportzionala itzuli beharko du, gehi diru laguntza ordaindu zen momentutik dagozkion berandutze interesak.

Jasotako zenbatekoen erabateko itzulera edo itzulera partziala burutu beharko da hitzarmen honetan aurreikusitako baldintzak edo udal kontu hartzailetza edo organo eskudunak ezarritako justifikazio betekizunak betetzen ez badira, bai eta diru laguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako kasuetan ere.

BEDERATZIGARRENA. HITZARMENA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK.

Suntsiarazteko arrazoiak izango dira:

- Ezarritako indarraldia amaitzea, hau da, 2021eko abenduaren 31.
- Alderdi sinatzaileen arteko ahobatezko akordioa.
- Alderdietako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.
- Hitzarmena baliogabetzat jotzen duen erabaki judiziala.

Hitzarmena suntsiarazteak azkendu egingo ditu alderdiek onartutako betebeharrak eta konpromisoak, eta baita prestazioen likidazioa ere. Helburu horietarako, aplikagarria izango da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 52. artikuluan xedatutakoa, suntsiaraztearen ondorioei eta likidazio eta kalte ordainen araubideari dagokienez.


Hitzarmenaren helburuak bete direla ulertuko da haren xedea burutu bada bi alderdientzat onargarriak diren baldintzetan.

Egikaritze prozesuan dagoen jarduketarik egongo balitz, alderdiek, jarraipen, zaintza eta kontrol batzordearen proposamenari jarraituta, abian dauden jarduketan jarraipena eta amaiera adostu ahalko dute, horiek amaitzeko epe luzaezina ezarrita.

HAMARGARRENA. DATU PERTSONALEN BABESERAKO ARAUBIDEA.

Datuen babeserako araubideari dagokionez, Udalak eta HIJOS DE MARTIN Y LOINAZ ANTZERKI ELKARTEAK 3/2018 Lege Organikoak, abenduaren 5ekoak, datu pertsonalak babestekoak eta eskubide digitalak bermatzekoak, aurreikusitako derrigorrezko xedapenak errespetatu beharko dituzte.

Beraz, hitzarmenaren garapenaren ondorioz jasotzen diren datu pertsonalak alderdi sinatzaileen erantzukizunpekoak diren datu fitxategietan sartuko dira eta hitzarmenean aurreikusitako obligazioak betetzeko soilik tratatuko dira.





Beasaingo Udala

HAMAIKAGARRENA. HITZARMENAREN INDARRALDIA.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea indarrean sartu ondoren, eta haren 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, hitzarmenen indarraldia ez da izango 4 urtetik gorakoa, alderdiek aho batez luzapen bat edo gehiago adosteko aukera kaltetu gabe, gehienez ere lau urtetan zehar hasierako epea amaitu zenetik.

Hitzarmen honek legezko xedapen hau betetzen du, sinatu zenetik 2021eko abenduaren 31ra bitarteko indarraldia baitu. Hitzarmenak ez du luzapenik onartzen.

HAMABIGARRENA. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIOA.

Hau izango da legeria aplikagarria:

- Udalaren Aurrekontu Orokorra, Beasaingo Udaleko Osoko Bilkuraren 2019ko azaroaren 28ko Akordio bidez onartu zena.
- Beasaingo Udalaren Diru Laguntzen Plan Estrategikoa, 2020-2022 aldirakoa, 2019ko abenduaren 18ko B19/1681 Alkatetza Ebazpen bidez onartu zena.
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru Laguntzen Lege Orokorra.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duena.
- Beasaingo Udaleko diru laguntzen udal ordenantza arautzailea, Osoko Bilkuraren 2006ko azaroaren 30eko Akordio bidez onartu zena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, 4. artikuluan berariaz xedatutakoaren arabera, hitzarmenak legearen aplikazio eremutik kanpo uzten dituen, lege horren printzipioak ager litezkeen zalantzak eta gabeziak argitu eta osatzeko aplikagarriak izan arren.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da alderdien artean ager litezkeen interpretazio, arazo eta egikaritze gaiak ebazteko eskuduna.



HAMAHIRUGARRENA. BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK.

HIJOS DE MARTIN Y LOINAZ ANTZERKI ELKARTEAK hitzarmen honetatik eratorritako obligazioak betetzeko beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak izango ditu, baina haren langileek ez dute inolaz ere izango lan arloko loturarik edo lotura juridikorik Beasaingo Udalarekin.

HIJOS DE MARTIN Y LOINAZ ANTZERKI ELKARTEAK, hitzarmen honetatik eratorritako jardueren garapenean, errespetatu egingo du 1/1996 Lege Organikoak, adingabearen gaineko babes juridikoari buruzkoak, xedatutakoa eta, zehazki, haren 13.5 artikuluan eskatutako akreditazioari dagokionez, adingabeekin harremana dakarten lanbideak, ogibideak eta jarduerak burutzeko kasuan.

HAMALAU GARRENA. DIRU LAGUNTZA ITZULTZEA.

Diru Laguntzen Lege Orokorraren Erregelamenduaren 90. artikuluan xedatutakoaren arabera, onuradunak jasotako zenbatekoa modu boluntarioan itzuli ahalko du, Udalak aurretiaz halakorik eskatu gabe.

Kasu horretan, diru laguntzaren onuradunak Beasaingo Udalaren aldeko banku transferentzia bat burutu beharko du. Diru sarreran zehaztu beharko dira diruz lagundutako jarduera, espediente zenbakia eta onuradunaren identifikazio datuak.

HAMABOS GARRENA. GATAZKAK EBAZTEA.

Hitzarmen honen aplikaziotik erator litezkeen interpretazio, aldaketa, suntsiarazte eta ondorioen inguruan ager litezkeen gatazkak alderdien arteko akordio bidez ebatziko dira eta, halakorik ezean, alderdi hauek administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoak izango dira.

Adierazitakoaren arabera eta sinatzaileei dagozkien ahalmenak baliatuta, hitzarmen hau izenpetu dute, bi aletan, goiburuan adierazitako tokian eta datan.

BEASAINGO UDALA



HIJOS DE MARTIN Y LOINAZ ANTZERKI ELKARTEA





Beasaingo Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN AURREKONTUA
2021. URTEA

PRESUPUESTO DE LAS ACTIVIDADES SUBVENCIONADAS
AÑO 2021

Gastuen Aurrekontua Presupuesto Gastos	1.000,00.- €
--	---------------------

Gastu Kontzeptua Concepto de Gasto	Kantitatea Cantidad
Antzezlanak	600,00.-
Elkartearen garapena	100,00.-
Kultur jardueretarako laguntza	300,00.-

Sarreraren Aurrekontua Presupuesto Ingresos	1.000,00.- €
---	---------------------

Sarrera Kontzeptua Concepto de Ingreso	Kantitatea Cantidad
Udalaren dirulaguntza	1.000,00.-€

11

